

SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA<



EUSKARALDIA.

HERRI MAILAKO TXOSTENAK



Aurkibidea

1.	<i>“Euskaraldia: 11 egun euskaraz” ikerketa</i>	3
2.	<i>Euskaraldia, 11 egun euskaraz ikerketa: Herrietako Txostena</i>	3
2.1.	<i>Edukiak</i>	3
2.2.	<i>Txosten motak</i>	4
3.	<i>Arriskuak</i>	4
3.1.	<i>Ikerketaren metodologia</i>	4
3.2.	<i>Aintzat hartzekoak</i>	5
3.2.1.	<i>Herri bakoitzeko inkestak bete dituztenen kopurua handia izatea</i>	5
3.2.2.	<i>Izen-emaile bakoitzak 3 inkestak egoki betetzea</i>	5
3.3.	<i>Arriskua ekiditeko zenbait neurri:</i>	6
3.3.1.	<i>Ikerketa bat egingo dela jakinaraztea:</i>	6
3.3.2.	<i>Herri bakoitzeko solaskide bat aukeratzea:</i>	6
4.	<i>Epeak</i>	6
5.	<i>Aurrekontuak</i>	7
6.	<i>Eskaera</i>	8



1. “Euskaraldia: 11 egun euskaraz” ikerketa

Euskaraldia: 11 egun euskaraz-en milaka pertsonak parte hartuko dute, guztiak ere euskara erabili eta sustatzeko gogoz. Gogo horrek bultzatuta, ekimenak jendearen hizkuntza ohituretan nolabaiteko eragina izango duela espero da, baina hain dimentsio zabalekoa izanik, zaila da eragin hori nolakoa eta zenbatekoa izango den irudikatzea.

Zalantza horri erantzun asmoz, Soziolinguistika Klusterrak *11 egun euskaraz* ekimenaren inguruko ikerketa proiektu bat jarri du abian. Pello Jauregi (EHUko irakasle eta doktorearen) zuzendaritzapeko proiektu hau Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ekimenez eta Kutxa Fundazioaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin burutzen dabil.

Bi dira ikerketa proiektuaren **xede nagusiak**:

- a) Batetik, hizkuntza ohiturak aldatzeko prozesuak aztertu nahi dira
- b) Bestetik, ekimenaren eragina nolakoa eta zenbatekoa den ezagutzeko bilatzen da

Ikerketa Euskal Herri mailakoa izango da eta *11 egun euskaraz*-en parte hartzeko izena eman duten norbanako guztiak kontuan hartuko dira azterketan.

2. *Euskaraldia, 11 egun euskaraz ikerketa: Herrietako Txostena*

Euskal Herri mailako datuak ez ezik herri bakoitzeko datuak eskuratzeko aukera ere eskainiko du azterketak, hala eskatzen duten herrientzat. Hori horrela, Soziolinguistika Klusterrak zerbitzu gisa eskaini nahi du herri bakoitzean bertako datuak eta horien bilakaera jasotzen dituen Herrietako Txostena.

2.1. *Edukiak*

Herrietako txostenak ondoko atalak izango ditu:

- Hizkuntzen erabilera
 - Parte hartze motaren arabera (Ahobizi edo Belarriprest)
 - Adinaren arabera
 - Generoaren arabera
 - Gaitasunaren arabera
- Motibazioaren bilakaera
- Hizkuntza jokaeren bilakaera 11 egun euskaraz ekimenean zehar
 - Ezagunekin
 - Ezezagunekin
 - Gizarte eremuaren arabera (lagunartean, familian, ikaslekuan...)
 - Norbere mintzatzeko gaitasunaren arabera
 - Solaskidearen mintzatzeko gaitasunaren arabera



- o Ekimenaren betetze mailaren arabera (txapa eraman den edo ez, euskaraz lehen hitza egin den edo ez...)
- Ahobizi eta Belarriprest arteko harremanak

2.2. Txosten motak

Herrietako txostena bi eratakoa izan daiteke: **Arrunta** edo **Berezia**. Bi kasuetan txostenaren atalak berdinak izango dira, haien arteko aldea atal horiek garatzeko moduan dago.

- a) **Txosten Arrunta:** Emaizta guztiak **taula eta grafiko bidez** emango dira, idatzizko azalpen edo interpretaziorik gabe.
- b) **Txosten Berezia:** Emaizak taula eta grafiko bidez emateaz gain, horien **idatzizko azalpena ere egingo da**, datuak interpretatu eta ulertzeko lagungarri.

Horretaz gain, Txosten Berezia hautatzen dutenek Soziolinguistika Klusterreko teknikari baten eskutik herriko datuen inguruko **aurkezpen-saio bat jasotzeko aukera** izango dute. Zerbitzu hori **aukerazkoa** izango da.

3. Arriskuak

Ikerketa honek darabilen metodologia dela medio, herri guztietako txostena egin ahal izango denik **ezin da hasieratik bermatu**. Jarraian azaltzen dira horren zergatiak, bai eta arrisku hori ekiditeko bideak ere.

3.1. Ikerketaren metodologia

Gorago aipatu bezala, **11 egun euskaraz**-en eragina ekimenean izena eman duten guztiak aintzat hartuz neurtuko da. Horretarako galdetegiak erabiliko dira, izen-emaileen hizkuntza ohiturak eta horien aldaketak kuantifikatzen lagunduko dutenak.

Zehazki, **3 galdetegi** bidaliko zaizkie izen-emaile guztiei:

- 1) **Lehen galdetegia:** ekimena hasi aurretik, **azaroak 23 baino egun batzuk lehenago**
- 2) **Bigarren galdetegia:** ekimena amaitu bezain laster, **abenduaren 3aren osteko 15 egunetan**
- 3) **Hirugarren galdetegia:** ekimena amaitu eta hiru hilabetera, **2019ko martxoan**

Galdetegi desberdinak egiteak une bakoitzean parte hartzaileen hizkuntza ohiturak nolakoak diren ezagutzeko aukera ematen du, bai eta **11 egun euskaraz**-en eraginaren bilakaera nolakoa izango den ikustekoa ere.



3.2. Aintzat hartzekoak

Metodologia honek milaka pertsonengana batera iristeko aukera eskaintzen badu ere, baditu bere arriskuak, jasoko diren emaitzak izena emandakoen parte hartzearen arabekoak izango baitira. Hots, zenbat eta jende gehiagok parte hartu, orduan eta emaitza aberatsagoak eskuratuko dira. Eta alderantziz, zenbat eta jende gutxiagok parte hartu, orduan eta eskasagoak izango dira lortutako datuak. Menpekotasun horrek dakar Herrietako Txostenak osatu ahal izateko ondoko bi auzi arretaz zaindu beharra:

3.2.1. Herri bakoitzeko inkestak bete dituztenen kopurua handia izatea.

Logikoa den moduan, komenigarria da herri bakoitzean ahalik eta jende gehienak inkestak betetzea: geroz eta jende gehiagok erantzuteak emaitzak are eta fidagarriagoak izatea dakarrelako, baina batez ere erantzun gutxiegi jasotzeko arriskua ekiditea ezinbestekoa delako. Inkestak ez badituzte aski pertsonak betetzen herri horretako txostena osatzea ezinezkoa izango baita.

Bildu beharreko gutxiengo erantzun kopurua aldatu egingo da herritik herrira, ekimenean izena eman duten herritar kopuruaren arabera erantzun gehiago edo gutxiago beharko baitira emaitzak aski fidagarriak izan daitezzen.

Jarraian aurkezten dira gutxiengo kopuru horietako zenbait adibide:

Euskaraldian izena eman duten herritarren kopurua	Izena eman duten horietatik galdetegi guztiak bete beharko luketenen gutxiengo kopurua	Akats tarteak	Datuen konfiantza maila
150	109	%5	%95
300	169	%5	%95
500	218	%5	%95
700	249	%5	%95
1.000	278	%5	%95
1.200	292	%5	%95
1.500	306	%5	%95
1.700	314	%5	%95
2.000	323	%5	%95
2.500	334	%5	%95

3.2.2. Izen-emaile bakoitzak 3 inkestak egoki betetzea

Parte hartzaileek galdetegietan eman dituzten erantzunez elikatuko dira ikerketaren emaitzak. Hori horrela, ezinbestekoa da parte hartzaileek **galdetegi guztiak modu egokian eta ezartzen diren epeetan erantzutea**. Izan ere aski da **galdetegietako bat erantzun gabe uztea pertsona horren datuak ikerketarako baliagarri izateari uzteko**.

Galdetegiak erantzutea errazagoa suerta dadin, izen emaileek **e-postaz jasoko dituzte galdetegiak eta modu telematikoa erantzuteko aukera izango dute hor bertan**.



3.3. Arriskua ekiditeko zenbait neurri:

Erantzun gutxiegi jasotzeko arriskua ekiditeko herritarren inplikazio eta konpromisoa lortzea ezinbestekoa izango da. Horretan laguntzeko ondokoa proposatzen dugu:

3.3.1. Ikerketa bat egingo dela jakinaraztea:

Herritarrek ikerketaren berri izan behar dute, bai eta ikerketaren urratsak eta epeak zeintzuk izango diren jakin ere. Bereziki azpimarratu beharko da ekimenean izena eman dutenei **3 galdetegi bidaliko zaizkiela eta horiek guztiak bete ezean herriko datuak ez jasotzeko arriskua egon litekeela.**

Prozesu horretan laguntzeko, Soziolinguistika Klusterrak, Euskaraldiko antolatzaileekin koordinatuta, zenbait informazio euskarri zabalduko ditu herrietan.

3.3.2. Herri bakoitzeko solaskide bat aukeratzea:

Herri bakoitzeko solaskide bat izendatzeak Soziolinguistika Klusterra eta herriaren arteko komunikazioa errazten lagunduko du. **Soziolinguistika Klusterrak solaskide horrekin zuzeneko kontaktua mantenduko du**, ikerketarekin zer ikusia duten auzien inguruan oharrak helarazi, bildutako datuen informazioa erraztu edo sor litezkeen zalantzak argitzeko. Solaskide hori batzordeko kide izatea komeni da.

Neurri hauek ez dute bermatzen ikerketaren amaieran Herrietako Txostena egiteko aski datu egongo denik, baina horretarako aukerak dezente areagotzen dira, jendea informatua eta motibatua egotea ezinbestekoa izango baita datuak eskuratu ahal izateko.

Nolanahi ere, aski datu eskuratu ezean edo eskuratzen direnak aski fidagarriak ez badira ere, herriek haien datuak ezagutzeko aukera izan dezakete. Soziolinguistika Klusterrak halako egoeran dagoen herri bakoitzarekin kasuan kasu aztertuko du datuak helarazteko modurik egokiena zein izan daitekeen (konfiantza maila jaistea, akats tartea handitzea...) eta horren berri emango die herriei datuak eskuratu nahi dituzten edo ez erabaki dezaten.

4. Epeak

Proiektu honek bederatzi hilabeteko iraupena izango du, tartean hiru neurraldiak egonik, 2018ko azaroan hasi eta 2019ko uztailean bukatzeko.

Egitekoak	2018		2019						
	11	12	1	2	3	4	5	6	7
Lehen galdetegiaren bidalketa	x								
Bigarren galdetegiaren bidalketa		x							
Hirugarren galdetegiaren bidalketa					x				
Emaitzen azterketa			x	x		x			
Txostenaren prestaketa							x		
Txostenaren bidalketa								x	x



5. Aurrekontuak

Aipatutakoa kontuan izanik, ondokoa da txosten mota bakoitzaren aurrekontua:

Txosten Arrunta	
Ikerketaren zuzendaritza eta koordinazioa	1.136,25 €
-Datu baseen prestaketa -Datuak informatizatzea, prozesatzea eta taulak sortzea -Koordinazio lana -Irudi grafikoak sortzea	
Datuen azterketa	953,75 €
-Datuen ustiaketa -Grafiko eta taulen txostenaren elaborazioa	
GUZTIRA (BEZ gabe)	2.090,00 €
BEZ (% 21)	438,90 €
Guztira ordaindu beharrekoa	2.528,90€

Txosten Berezia (Aurkezpenik gabe)	
Ikerketaren zuzendaritza eta koordinazioa	1.136,25 €
-Datu baseen prestaketa -Datuak informatizatzea, prozesatzea eta taulak sortzea -Koordinazio lana -Irudi grafikoak sortzea	
Datuen azterketa	1.703,75 €
-Datuen ustiaketa -Grafiko eta taulen txostenaren elaborazioa -Datuen interpretazioa	
GUZTIRA (BEZ gabe)	2.840,00€
BEZ (% 21)	596,40€
Guztira ordaindu beharrekoa	3.436,40€



Txosten Berezia (Aurkezpenarekin)	
Ikerketaren zuzendaritza eta koordinazioa	1.136,25 €
-Datu baseen prestaketa -Datuak informatizatzea, prozesatzea eta taulak sortzea -Koordinazio lana -Irudi grafikoak sortzea	
Datuen azterketa	1.703,75 €
-Datuen ustiaketa -Grafiko eta taulen txostenaren elaborazioa -Datuen interpretazioa	
Emaitzen aurkezpena (Aukerazkoa)	550,00 €
-Dietak -Aurkezpena prestatu eta burutzea	
GUZTIRA (BEZ gabe)	3.390,00 €
BEZ (% 21)	711,90 €
Guztira ordaindu beharrekoa	4.101,90€

6. Eskaera

Herri mailako txostena eskuratu nahi duten herriek eskaera egin beharko dute lehenago. Eskaera egiteko epea irailaren 30ean amaitzen da (data hori barne) eta ondoko bideetatik egin liteke:

E-postaz: ikerketa@euskaraldia.eus

Telefonoz: 943 59 25 56, Soziolinguistika Klusterra

Eskaera egitean garrantzitsua da zein txosten mota nahi den zehaztea, eta Txosten Berezia izatekotan, aurkezpenik nahiko den edo ez argitzea.

Ondoren, iraila bitarte jasotako eskaera guztiak baloratuko ditu Soziolinguistika Klusterrak. Eskaeren bolumena zenbatekoa den eta horri erantzuteko behar besteko gaitasunik eta baliabiderik dagoen kontuan hartuko da. Horren arabera, urria amaieran herriek erantzun bat jasoko dute, haien eskaera betetzerik egongo den edo ez argituz.

